

# Giltzarri

Gaztetxoekimena plataforma  
Plataforma de actividades juveniles

## **FAMILIEI ETA GIZARTE – HEZKUNTZAKO ERAGILEEI ZUZENDUTAKO INFORMAZIO DOSSIERRA**

**12TIK 18 URTERA BITARTEKO NESKA-MUTILENTZAKO  
AISIA, HEZKUNTZA ETA PARTE-HARTZE ZERBITZUA**



**Dossier honetan hurrengo informazioa agertzen da:**

**Zer da Giltzarri?**

**Gazte taldeak eta parte-hartze egitura**

**Non gaude?**

**ZER DA GILTZARRI?**

Barakaldoko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Droga-menpekotasunen Arloko zerbitzu bat da Giltzarri Plataforma. Beste udal arlo eta hezkuntza zentro batzuekin lankidetzan dihardu 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutilekin aisia, kultura eta elkartasun egitasmoak garatzen, eskola orduetatik kanpo. Parte-hartzea du darabilen metodologiak oinarri.

Plataforman, batera dihardute heziketa prozesu anitzak.



Prozesuetan garrantzitsuenak eta plataformaren oinarria dira **jardueretako gazte taldeak**. Gazteak astero biltzen dira beren zaletasunekin zerikusia duten jarduerak garatzeko: antzerkia, solidaritatea, break dancea, funkya, boluntariotza, graffitia, capoeira, argazkilaritza, Musika Taldeak, Mendi Taldea, Emozioen autodefentsa, bortitzak prebenitzea... )

#### KONTUAN HARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK:

Urtero aldatzen dira taldeak, neska-mutilen kezka eta proposamenen arabera.

- Talde bat sortzeko gutxienezko kopurua 10 lagunekoa da
- Parte hartzeko irizpidea: bi taldetan, gehienez, beste taldeetan beteta badaude.
- Lehenetsuna emango zaie eske gehien duten taldeei, edo bestela, hezitzaile arduradunaren hezkuntza irizpideei.

**Batzordeak:** Udalerrian antolatuta nahi dituzten jarduerak garatu, planifikatu eta kudeatzerakoan, neska-mutilak protagonista izango dituzten taldeak dira batzordeak.

- Eszena-arten eta arte-jardueren batzordea.
- Egitasmo solidario eta zibiko-komunitarioen batzordea.
- Jai batzordea.
- Auzoak suspertzeko batzordea.
- Asteburuko jardueren batzordea.
- Institutuko dinamizazio batzordea (patioak, jardunaldiak, gertakizunak, e.a.)



**Giltzarri Eskola:** Dinamizazio eta parte-hartze arloa lantzeko eskola da, eta , nerabeen esku errealitatea aztertzeko, konpromisoak hartzeko eta gizartea dinamizatzeko tresnak jartzea eta horretarako prestatzea du helburu. Haien ordezkariak aukeratuko dituzte: **"Kontseilua"**

**Biltzarra:** Giltzarriko neska-mutilak biltzen dituen gunea. Biltzarrean, eskuarteetan dauzkaten egitasmoen berri ematen dute, eta abiarazi nahi dituzten gizarte-kulturazko nahiz elkartasunezko ekimenak bozkatzeko dituzte. Hiru biltzar egiten dira urtean, eta nerabeek beraiek dinamizatzen dituzte



**Asteburuetan**, programazio berezitua izango dute, beraiek proposatu eta planifikatua: gazte taldeak (urtekoak), mendira irteerak, ibilbideak, txapelketak, antzerkera eta zinera irteerak, tailerrak eta abar

Barakaldoko gazteei aukera eskaintzen diegu ez bakarrik aisia, gizarte-kultura eta elkartasunaren alorreko jardueretan parte hartzeko soilik, baizik eta garapenean, planifikazioan eta kudeaketan beraiek protagonista izatekoa ere. Prozesu horretan guztian hezitzaileen laguntza izango dute, eta, bide batez, konpromisoa, erantzukizuna, talde lana, berdintasuna, kooperazioa eta beste hainbat balore baitaratu dituzte, zeharka.

### NON GAUDE?

Udalerriko lurralde eta institutu publikoetan hezitzaile bana, dugu bai eta Hitzartutako Ikastegietako neska-mutiletan arreta jartzen duen beste bat ere.

Lurraldeak: Erdialdea, Beurko-Bagatza, San Bizente eta Gurutzeta)

Institutu publikoak (Trueba, Meatzak, Beurko eta Gurutzeta) eta hitzartutako ikastegiak



Horrezaz gainera, **Giltzarri Topalekura** jo dezakete, eta hezitzailearekin ez ezik beste gazte batzuekin ere izan dezakete harremana, eta ping-pongean, mahai-futbolean, wiian, mahai-jokoetan eta abar aritu.

### TOPALEKUEN ORDUTEGIA

Giltzarri Topalekua	Gurutzetako Giltzarri Topalekua
<b>Topaleku Giltzarri</b> Lekua: Anaïen Parkea. ISZ eraikina. 3. sol. Astelehenetik ostiralera 17:00-20:00	Lekua: Gurutzetako Zentro Zibikoa Astelehenetik ostiralera 17:00-20:00

Gurasoek, legezko tutoreek eta irakasleek informazio gehiago eskuratu ahal izango dute, hezitzaileen bitartez, hurrengoetara joz:

**Giltzarri bulegoa**  
**94 478 95 97 (goisez)**  
[giltzarri@barakaldo.eus](mailto:giltzarri@barakaldo.eus)  
[www.giltzarri.info](http://www.giltzarri.info)  
[instagram](#)

**Topaleku**  
**94 478 96 41(arratsalde)**

**Koordinazio teknikoa**  
**94 478 92 66**  
[barakaldogaztea@barakaldo.eus](mailto:barakaldogaztea@barakaldo.eus)